


Jolasak eta jostailuak

Haur hezkuntza

Parkean bada befi zertan jolastu



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO





Argitaraldia: 1.a 2007ko irailan
Ale-kopurua: 1.000 ale
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Industria, Merkataritza eta Turismo Salla
Internet: www.euskadi.net
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Egilea: Ortazar, S.L.
Aurreinprimaketa: Argia Servicios Gráficos, S. L.
Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S. A.
ISBN: 978-84-457-2607-5
Lege-gordailua: VI-392/07

AURKIBIDEA

Or.

Irakasleentzako informazioa	3
• Jakin beharreko datuak	3
• Helburuak	4
• Edukiak	4
• Proposamen didaktikoak	5
Aurretiko jarduerarako proposamenak	6
Jarduera osagarriak	7
Geroagoko jarduerak (Fitxa didaktikoak)	9





IRAKASLEENTZAKO INFORMAZIOA

JAKIN BEHARREKO DATUAK

JOLASAK funtzio garrantzitsua du hezkuntza-prozesuan, sormena, afektibitatea, adimena eta soziabilitatea garatzen laguntzen baitu.

JOSTAILUA jolas-prozesua gauzatzeko tresna da; Ez da, ordea, ezinbesteko elementua. Horrenbestez, jostailurik gabe ere jolas daiteke.

JOLASAREKIKO JOKABIDEA, 2 ETA 6 URTE BITARTEKO HAURRENGAN

Hasteko, **2 eta 6 urte** bitarteko haurren **jokabidea** aztertuko dugu, ondoren adin horietako haurrentzako jolas egokienak aukeratzeko.

Bi urteko haurrei ikaragarri gustatzen zaie inguruko jokabideak eta inpresioak antzeratzea. Adimenaren eta afektibitatearen inplikazioa oso handia denez, ez dakite non dauden mugak. Jolasa tentsioak askatzeko modua da haur horientzat; sinboliko bihurtzen da, eta beren nahiak gauzatzeko aukera ematen die. Etapa horretan, ametsezko egoerak garatzeko jolasak gustatzen zaizkie gehien; hau da, rol bat irudikatzen jolasak, eta sinbolismoa eta istorioak asmatzea sustatzen dutenak.

Hiru urtetik aurrera, beren adinekoekin harremanetan jartzen hasten dira, eta haiekin elkartu nahi izaten dute jolasteko; hala ere, haur horientzako garrantzitsuena bakoitzak bere nahiak gauzatea da. Une horretan agertzen da, zenbait kasutan, irudipenezko laguna. Adin horretan, ikaragarri gustatzen zaie ipuinak behin eta berriz entzun eta buruz ikastea; horien bidez, beren gatazkak irudikatzen dituzte, beren nahiak fantasiaren munduan betetzen dituzte.

Lau urtetik aurrera, rol-jokoak egiten dituzte, baita beren gaitasunetan eta ikusizko memorian oinarritutako jolasak ere.

ADIN HORIETARAKO JOLAS ETA JOSTAILU EGOKIENAK

ADINA	JOLASAK / JOSTAILUAK
2 urtetik aurrera	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko eraikuntzak. • Ibilgailu-simulagailuak (autoak, trenak,...). • Eskulanak, hatz-pintura edo buztina erabilia. • Panpinak.
3 urtetik aurrera	<ul style="list-style-type: none"> • Patinak, trizikloak,... • Eraikuntza konplexuagoak; esaterako, puzzleak eta buru-hausgarriak. • Etxeko-lanetan laguntzea.

4 urtetik aurrera	<ul style="list-style-type: none"> • Simulazioak, mozorroen, panpinen eta abarren bidez. • Kirolarekin zerikusia duten talde-jolasak. • Eskulan txikiak. • Etxeko jarduerak antzeratzen dituzten osagarriak. • Trebetasun- eta mahai-jokoak.
5 eta 6 urte artean	<ul style="list-style-type: none"> • Eskulanak, guraize puntamotzak erabilia egiten direnak, eta marrazteko eta modelatzeko ereduak eta moldeak erabilia egiten direnak. • Haur-jarduerak dituzten liburuak. • Trebetasun-joko konplexuagoak. • Ikusizko memorian oinarritutako jolasak. • Mota guztietako mozorroak eta simulazioak.

JOLAS-PROZESUA GAUZATZEKO AHOLKUAK

- Honako oinarri honetatik abiatuko gara: **JOSTAILUA ez da ezinbesteko baldintza** jolas-jarduerak garatzeko.
- **Haurrek, jostailurik ez badute, inprobisatu egiten dituzte.** Jostailu gehiegi badituzte, jabe bihurtzen dira, ez sortzaile.
- **Fabrikatutako jostailua ez da** haurrak duen **aukera bakarra.** Kaxa bat istorio baten protagonista bihurtu daiteke.
- Haurrek beren objektuen erantzule izan behar dute. **Erabili ondoren jaso** egin behar dituztela ulertu behar dute.
- **Publizitateak eragin** handia du haur txikiengan ere; komeni da ikusaraztea iragarkietan jostailu gutxi batzuk baino ez direla agertzen, eta aukera zabala dagoela merkatuan.
- Komeni da jostailuek **erabilera bat baino gehiago izatea**, erabile-ak aldatzeko eta haurren sormen-jarduerari laguntzeko.
- **Jolasak eta jostailuak haurren adinera egokitu behar dira**, baita haurren interesetara eta zaletasunetara ere.

JOLASEK ETA JOSTAILUEK BULTZATZEN DITUZTEN GAITASUNAK

Puzzleak, galde-erantzunen jolasek, trebetasun-jokoak,...	Adimena
Eraikuntza-jolasek, mozorroek, musika-tresnek,...	Sormena
Kirol-jolasek, patinek,...	Koordinazioa eta oreka

JOSTAILU SEGURU BAT AUKERATZEKO JARRAIBIDEAK

Aipatutako aholkuak kontuan izateaz gain, garrantzitsua da txikiei produktu SEGURUAK erostea. Jostailuen segurtasuna arau batek ezartzen du; arau horrek zehazten ditu jostailuen ezaugarri fisikoak, mekanikoak eta kimikoak, bai eta zer informazio eta etiketa eraman behar dituzten ere.

- Kontuan izan behar dira **objektuaren neurria** eta objektu horren piezak. Jostailua txikia bada, edo piezak ongi lotuta ez badaude, txikienek irentsi egin ditzakete.
- Kontu handia izan behar da uretako jostailuekin; jostailu batzuk erabiltzean, haurra **hondoratu egin daiteke, edo oreka gal dezakete**.
- **Ez** erosi haustean forma zorrotz edo ebakitzailedun piezak utz ditzakeen produkturik.
- Kontu izan **janaria antzeratzen duten objektuekin**, edo jangarriak edo erakargarriak direnekin, haurrei objektu horiek irensteko gogoia sor dakieke-eta.
- Haurra mugiarazten duten jostailuek **balaztatze-sistema** dutela bermatu behar da, jostailuaren energiarako egokia dena, gainera. Eta jostailua ez dela kaltegarria eta erraz erabiltzen dela ere ziurtatu behar da.
- **Etiketa irakurri** behar da, jostailua zein adinetarako den egokia adierazki baitigu. Jostailuak, besteak beste, Europar Batasuneko marka (CE) eraman beharko du; marka horrek oinarritzko segurtasun-eskakizunak betetzen dituela adierazten du.

C.E.

PUBLIZITATEAREN ERAGINA

Helduekin gertatzen den moduan, kontuan izan behar dugu publizitateak zenbateko boterea duten txikiak konbentzitzeko. Hori dela eta, indarrean dagoen lege-diak mugak jartzen dizkie jostailuen iragarkiei:

- Ezin dute izan haurrei kalte egin diezaiekeen irudirik eta mezurik.
- Adin horretako pertsonak ezin izango dira aurkeztu, arrazoirik gabe, egoera arriskutsuetan edo indarkeriazko egoeretan, egoera bidegabeetan eta abarretan. Halaber, ezin dira sustatu armak irudikatzen dituzten jostailuak, ez eta beren baitan gerrazalekeria nahiz indarkeriaren erabilera barne hartzen dutenak ere.
- Iragarkiek ezin dute agertu jolas horiek berez direna baino errazagoak direnik; batez ere, eskulanak egiteko jostailuak.
- Argi eta garbi adieraziko da jostailua eskuz edo mekanikoki jartzen den martxan.

- Ezin da jostailuaren elementuei buruzko mezu engainagarririk eman; elementuak jostailuarekin batera edo bereizita saltzen diren zehaztu behar da.
- Halaber, ezin da uste okerrik eragin jostailuaren ezaugarriei, segurtasunari edo ahalmenari buruz, ez eta hurrek jostailu hori erabiltzeko behar dituzten gaitasunei buruz ere.

HELBURUAK

Helburu orokorra:

- Jostailuak eta jolasak aukeratzeko irizpide berriez jabetzea, iragarkiek ematen dituzten irizpideez bestelakoez, alegia, eta jostailu handirik gabe ongi pasatzen ikastea.

Helburu zehatzak:

- Jolasaren eta jostailuaren arteko desberdintasuna zein den jakitea.
- Jostailurik gabe dibertitzeko moduak ikastea.
- Jolasa harremanetarako eta komunikatzeko modutzat hartzea.
- Jostailuak aukeratzeko iragarkiek zenbateko eragina duten ohartzea.
- Jostailu bat aukeratzeko eta erabiltzeko unean kontuan izan behar diren guztiaren ezaugarriak (segurtasuna, kalitatea,...) argitzea eta aztertzea.
- Jolas eta jostailu tradizionalak ezagutzea.

EDUKIAK

1. Jolasak eta jostailuak.
2. Jostailurik gabeko jolasak.
3. Jostailuen iragarkiak.
4. Segurtasuna jolasetan eta jostailuetan.
5. Jostailuen eta jolasen balioak: jolas ez-sexistak, lankidetzajolasak, etab.
6. Jolasaren bidezko ezagutzak eta adierazpenak.
7. Jolas eta jostailu tradizionalak.

PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK

IKASTEKO ETA IRAKASTEKO JARDUERAK	
Aurretiko jarduerak	<ol style="list-style-type: none">1. Jolas gaitzezen guztiok elkarrekin2. Betiko jolasak eta jostailuak.3. Azter ditzagun jostailuak4. Jostailuak biltzera eta antolatzera jolastu
Geroagoko jarduerak (fitxa didaktikoak)	<ol style="list-style-type: none">1. fitxa. Betiko jostailuak2. fitxa. Pilota bakarra eta jolasak ugari3. fitxa. Jostailuen bila4. fitxa. Jolas gaitzezen guztiok5. fitxa. Jostailu bakoitza bere tokian6. fitxa. Jostailuak berriz erabili eta birziklatu7. fitxa. Publizitatearekin kontuz ibili8. fitxa. Adi, dominoa!9. fitxa. Lagun artean hobe10. fitxa. Oso puzzle dibertigarria11. fitxa. Jolastu bai, baina kontu handiz12. fitxa. Ikusi-makusi, zer ikusi?
Jarduera osagarriak	<ol style="list-style-type: none">1. Geuk asmatuko dugu jolasa2. Ingurumena errespetatuz jolastu3. Esperimentua: Esku-jokoa, azpi-jokoa4. Asmakizunak

1. “Jolas gaitezen guztiok elkarrekin”

Gela bost taldetan banatuko dugu. Talde bakoitzak ariketa bat aukeratuko du eskolako jolastokian egiteko. Ariketa guztiek baldintza bat bete behar dute: gela-ko haur guztiek parte hartu ahal izatea. Ariketen aukeraketa egin ondoren, horma-irudi bat egingo da; bertan, bost jolasak agertuko dira (asteko egun bakoitzeko bat). Jolas-orduan, egun horretako jolasa zein den begiratuko dute eta ondoren jolas horretan arituko dira. Era honetan, talde-jolasa eta haurren arteko harremana indartuko ditugu.

2. “Betiko jolasak eta jostailuak”

Marrazkiak eginez edo objektua bera erakutsiz, jostailuak eta jolasak erakutsiko dizkiegu ikasleei. Baina ez edonolakoak, badira batzuk denboraren eragina igartzeko ez dutenak: ziba (tronpa), partxisa, soka, goma, puxtarriak, ezkutaketa-jolasa, etab.

Haurrak etxera iristean nagusiei (gurasoei eta aitona-amonei) galdera batzuk egingo dizkiete: ea zer jolasetan aritzen ziren umetan, ea zer jostailu zuten gogoko, ea non erosten zituzten, ea nola eginda zeuden, etab. Galdera hauen erantzunei esker jakingo dute jolas batzuk aldatuz joan direla eta beste batzuk berdin-berdin dirautela.

Nagusiak gonbidatu ditzakete eskolara, jolasak eta jostailuak erakuts ditzaten.

3. “Azter ditzagun jostailuak”

Opari gisa hartu nahiko lituzketen jostailuen zerrenda bat egin. Ondoren, jostailuak aztertu, irizpide hauek kontuan izanik:

- Nolakoa da jostailua?
- Zer jolas egin daiteke berarekin?
- Nori aholkatzen diote?
- Taldean ala bakarka jolastu behar da?
- Telebistan iragartzen dute?
- Zuzenean ikusita, iragarkikoa bezalakoa iruditu zaie?

4. “Jostailuak biltzera eta antolatzen jolastu”

Jolasaren bidez gauzak antolatu egin daitezke eta bukatu ondoren, bide batez, neska-mutikoak jostailuak biltzeko ohitura hartuz joango dira.

Lehenengo eta behin, jostailua non gorde erabaki behar da. Jarraian, egokia izango litzateke toki bakoitzari izen bat ematea: "Ez dakitzeren txokoa", "Badakitzeren kutxa", etab. Garrantzitsua da ariketaren arabera sailkatzea. Jostailuen argazkiak har ditzakegu aldizkari batetik eta gero argazki horiekin apaindu jostailuak gordetzeko kutxa; denbora jakin batean zenbat jostailu gordetzeko gai garen jakitera jolas gaitzke; galduak eta hondatutako jostailuak kutxa batean sar ditzakegu; etab.

GEUK ASMATUKO DUGU JOLASA



BEHARREZKO GAUZAK orri zuria, margoak, guraizeak, zinta itsasgarria eta klariona (erdibituta).

Orri zuri batean, lau zatitan banatutako zirkulu bat marraztu. Zati bakoitzean marrazki batzuk agertuko dira, haurrek margo ditzaten: eskuineko hanka, ezkerreko hanka, eskuineko eskua eta ezkerreko eskua.

Beste orri zuri batean, beste zirkulu bat marraztu (hau ere lau zatitan banatuta). Zati bakoitzak kolore bat izango du: gorria, horia, berdea eta urdina.

Ondoren hamasei orri zuri prestatuko ditugu; orriei zirkulu bana marraztuko diegu. Guztien artean, marrazkien barruko aldeak margotuko dizkiete. Emaitza: lau zirkulu urdin, lau berde, lau gorri eta lau hori.

Gero, zirkuluak moztu eta gelako zoruaren itsatsi, zinta itsasgarria erabiliz. Gorputzaren zatia marraztuta ditzuten orriak eta sektoreka zatitutako zirkulua ere zoruaren jarri. Ume batek bi klarion jaurtiko ditu zirkuluen gainera eta gainerako haurrek, txandaka, hanka edo esku egokiak ipini beharko dituzte dagozkien koloreen gainean.

INGURUMENA ERRESPETATUZ JOLASTU



BEHARREZKO GAUZAK

kartoizko tutu bat, artile zahar zati bat, orri-zulagailua eta erabiltako kortxoa.

Garrantzitsua da haurrei euren jolasak egiten irakastea. Horretarako hondakinak erabiliz jostailu bat egingo dugu. Erraza da. Komuneko paperaren kartoizko tutuari zulo bat egingo diegu alde batean. Orri-zulagailua erabiliz horretarako. Eta ondoren, atsegina dugun eran apaindu. Egin dugun zuloxotik artile zati bat sartu. Artilearen muturrari erabiltako kortxoa lotuko diegu. Kortxoa tutu barruan sartzean datza jolasa. Artilea zenbat eta luzeagoa izan, jolasa are eta zailagoa izango da.

Ingurumena errespetatzeko, material natural eta biodegradagarriak egin behar da jostailua. Horrez gain, hiru gauza errespetatu behar dira:

- Erabiliko ez diren jostailuak gutxiago kontsumitu.
- Jostailuak berri erabili (erabiliko dituen beste norbaiti oparia eginez).
- Hondatu baldin badira, birziklatu.

ESPERIMENTUA: "ESKU-JOKOA, AZPI-JOKOA"



BEHARREZKO GAUZAK orri bat, oharra (puntuak) idazteko arkatzak, begiak estaltzeko zapi, hainbat forma eta materialez osatutako hogeita gauza.

Begiak itxita dituen lagun bati gauza bat jarriko diegu eskuetan. Bera gauza hori zer den asmatzen saiatuko da. Asmatzen duen gauza bakoitzeko puntu bat emango diegu (idatzi): forma asmatuz gero puntu bat, materiala asmatuz gero beste bat eta izena asmatuz gero beste bat. Hau da, gauza bakoitzeko hiru puntu lor daitezke.

Taldea, gela osoak hartuko du parte. Azkenean puntu guztiak batu eta erantzun gehien asmatu duen taldea izango da irabazlea.

Eskuak dira gauzak ukitzeko gorputzeko zatirik egokienak.

Eskuetako azala oso mehea da eta milioika nerbiak informazioa bidaltzen digute garunera. Horri esker, gauza pila bat asma genezake: gauzak zimurtsuak edo leunak diren, tenperatura, forma, etab. Garunaren barruan irudi bat osatzen da; eskuetan dugun gauza "ikus" egin dezakegula esan daiteke ia.

ASMAKIZUNAK



- Txikia naiz, kristalezkoa. Sar nazazu zuban eta zeuk irabaziko duzu jokoa. (**PXUTARRIA**)
- Bira eta bira etengabe. Ni mugiarazteko sokatxo bat hobe. (**TRONPA**)
- Jokalariek ezin jokaldirik egin ni gabe eta nirekin daudenean beti ostikoka hartzen naute. (**BALOIA**)
- Jolasa da. Ni geldirik eta zuk ospa. Bat, bi, hiru, lau... Non ote dago hau? (**EZKUTAKETA**)
- Gurpilak eta pedalak ditut, katea eta eskulekua. Ez dut gasolinarik behar. Ni mugitzeko, zuk hankei eragin behar. (**BIZIKLETA**)
- Kateak ditut. Bultza eginez gero, ni hara eta hona. Jolastokietan ezin ni gabe egon. (**TXINTXAUNA**)